


KANALAK

Azken atalean, bezeroekiko harremananei buruzko atalean, gure bezeroekiko harremana nolakoa izango den zehaztu dugu, baina, harreman hori nola sustatuko dugu? Hurrengo lerroetan hau azalduko dizuegu, zer erabiliko dugun erlazio hori eraikitzeko. Hasiera batetik, argi izan behar dugu gure bezeroekiko ezarriko dugun harremana kanal propio zuzenaren bitartekoa izango dela, hau da, internet bidez izango dugu kontaktua beraiekin.

Garrantzitsuena gure produktuaren “erakuslehioa” da: App Store eta Google Play plataformetan egongo da aplikazioa eskuragarri dohainik deskargatzeko. Gailu orok eskura dituen plataformak dira biak, eta beraz ez dauka inongo zailtasunik APPa deskargatzek. Luzatzailea, Chrome Web Store-en egongo da eskuragarri. Horrekin lotuta, APPak deskribapen argi eta laburra izango du, logo erakargarri batekin, erabiltzaileak hura deskargatzera bultzatzeko.

Publizitateari dagokionez, hainbat kanal erabiliko ditugu. Lehenik, gaur egun sare sozialek duten indar paregabeaz baliaturik ondorengo plataformak erabiliko ditugu: Facebook, Instagram, Twitter eta TikTok. Bertan, Azkeneko hiru plataformak gazteei zuzenduta egongo liriateke, eta lehena helduagoi, besteak beste, APParen atzean dagoen guztia azalduko dugu, bezeroa proiektuaren parte sentitzeko eta era berean proiektua eremu berritzaile batean kokatzeko bideoak igoko ditugu. Bestalde, aplikazioaren funtsezko ezaugarriak ere nabarmenduko ditugu, modu ulerterrazean dibertigarria bihurtzeko. Bigarrenik, posta-elektroniko bidezko publizitate-mezuak bidaliko ditugu “Newsletter”-en erara harpidetzen diren guztiei. Hirugarrenik, herriko elkarte eta egunkariekin hitz egingo genukeen, elkarriketaren bat lortzeko, adibidez; bezeroeriko zuzeneko lotura ezartzea funtsezkoa iruditzen baitzaigu, EAEn ezagunak diren komunikazio bideetan oinarritzen saiatuko ginateke, Otamotz, Hitza, Gaztea irratia... komunitate handia dutelako.



Gainera, webgune bat sortu dugu. Bertan, gure produktua zein den azalduko dugu xehetasun osoz, gure helburua zein den azalduko dugu, eta gurekin kontaktuan jarri ahal izateko metodoak agertuko dira, gure sare-sozialak (supermerkea) eta posta elektronikoa (supermerkea@laguntza.eus). Gainera, oso interesgarria iruditzen zaigu bezeroen balorazio errealak argitaratzea, hala nola APPa erabiltzeko tutorialak... eskaintzea.

Ostera, gure posta elektronikoa erabilgarri egongo da, non APPa instalatuz gero, bezeroek galdera espezifikoagoi erantzuna jasotzeko aukera izango luketen. Gure helburua bezeroa gure produktuarekin seguru sentitzea da, inolako zalantzik izatea.

Bukatzeko, supermerkatuekin komunikazio zuzeneko kanalak sortuko ditugu. Bertako eskaintzak uneoro online adierazteak erabiltzailearen esperientzia hobetzen du, erantzun azkar eta pertsonalizatuak ematen baititu.